

1. Ekosistemak hiru elementuk osatzen dituzte:

- ☐ Biotopoa, biozenosia eta erlazioak.
- ☐ Biotopoa, erlazioak eta asoziazioak.

2. Biotopoa hauek osatzen dute:

- ☐ Osagai bizidunek eta bizigabeek.
- ☐ Osagai bizigabeek.

3. Biozenosia hauek osatzen dute:

- ☐ Ekosistema bateko izaki bizidun guztiek.
- ☐ Toki batek eta bertako egoera fisikoek.

4. Elikadura-erlazioen arabera, ekosistema bateko izaki bizidunak honako hauen arabera sailkatzen dira:

- ☐ Kontsumitzaileak, ekoizleak eta erlazioak.
- ☐ Ekoizleak, kontsumitzaileak eta deskonposatzaileak.

5. Espezie bereko izakien arteko asoziazioak horrelakoak izan daitezke:

- ☐ Mutualismoa, parasitismoa eta komentsalismoa.
- ☐ Asoziazio taldekoiak, familiak eta sozietateak.

6. Bi espezie ezberdinen arteko erlazioak bie onura badakarkie horrela deitzen da:

- ☐ Komentalismoa.
- ☐ Mutualismoa.

7. Landareen egokitzapen anatomikoaren adibideak dira:

- ☐ Udaberrian loratzea, orduan daudelako intsektu polinizatzaile gehien.
- ☐ Arantzak edo zati toxikoak izatea, jan ez ditzaten.

8. Paumaren egokitzapen funtzionalaren adibide da:

- ☐ Lumadi ikusgarria izatea emea erakartzeko.
- ☐ Isatsa zabaltzea emea gorteatzeko.

9. Ekosistemetan desorekak sortzen dira...

- ☐ Baliabideak behar baino gehiago ustiatzen eta txarto banatzen ditugunean eta lurraldeak hartu, aldatu eta kutsatzen ditugunean.
- ☐ Baliabideak zentzuz ustiatzen ditugunean.

10. Honetan datza garapen jasangarria:

- ☐ Baliabide naturalak behar baino gehiago ustiatzea gizakien gurak asetzeko.
- ☐ Gaur egungo zein etorkizuneko gizakiek bizirik iraun dezaten ziurtatzen ahalegintzea, baliabide naturalak zentzuz eta neurriz ustiatuz eta natura errespetatuz.

Otsoa	Mirotza	Saia
Untxia	Orkatza	Muskerra
Eperra	Matxinsalto	Igela
Zizarea	Sasiak	Belarrak
Belatza	Mantisa	Onddoak
Burruntzia	Sagua	Tximeleta
Alga	Olmos	Erlea

KONTSUMITZAILEAK

EKOIZLEAK

DESKONPOSATZAILEAK